



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2020ko uztailaren 17koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita hautaketa-batzordeak aurkeztutako ebazpen-proposamena errendimendu handiko unibertsitate-ikasleak aintzatesteko eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdiari dagozkiona.

Hezkuntza sailburuak, 2019ko uztailaren 2ko aginduaren bitartez (2019ko uztailaren 17eko EHAA), 2019-2020ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat.

Aginduaren III. Eranskinaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera eratutako hautaketa-batzordeak, aurkeztutako eskaeren ebazpen-proposamena egin du.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- 2019-2020 ikasturtean errendimendu handiko unibertsitate-ikasleak aintzatesteko eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdian parte hartzen duten eskatzaileei jakinaraztea beka-deialdiari dagokion ebazpen-proposamena. I. eranskinean, esleipen-proposamena duten eskabideak zerrendatzen dira; II. eranskinean, ukatzeko proposamena duten eskabideak zerrendatzen dira; eta III. eranskinean, ordezkoen zerrenda osatzen duten eskabideak zerrendatzen dira, lehentasun-ordenaren arabera.

Bigarren.- 15 egun naturaleko epea irekitzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 17a

Miren Artaraz Miñón
UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA